



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Bermeoko Udala

**Lehiaketa iragarkia: Bermeoko Aritzatxu hondartzako kantinearen eta komunen emakida administratiboa ematea.**

2026ko martxoaren 27ko Alkatetza Dekretu bidez emakida esleitzeko oinarriak onartu dira, espedienteari hasiera emanez. Iragarki honen bidez Bermeoko Aritzatxu hondartzako kantinearen eta komunen erabilera pribatibo eta arrunterako administrazio-emakida esleitzeko deialdia egiten da.

Iragarki honen bidez deialdia irekitzen da.

#### 1. Erakunde esleitzaila

- Erakundea: Bermeoko Udala.
- Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Saila.
- Espediente-zenbakia: IDA\_ERA\_0025\_2026.

#### 2. Dokumentazioa eta informazioa lortzea

- Bulegoa: Idazkaritza Saila.
- Helbidea: Arana eta Goiri tar Sabinen enparantza, z/g.
- Herria eta posta kodea: Bermeo, 48370.
- Telefonoa: 946179105.
- Webgunea: [www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus)

#### 3. Lizitazioaren xedea

- a) Mota: Administrazio-emakida.
- b) Deskribapena: Erabilera pribatibo eta arruntaren emakida ematea.
- c) Iraupena: Erabilera pribatibo eta arruntaren emakidaren iraupena urte batekoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu. Urteko epealdia:
  - Udan: 2026ko ekainaren 1etik 2026ko irailaren 30era.
  - Aste Santuan: 2027ko martxoaren 20tik apirilaren 4ra.

#### 4. Izapideak eta prozedura

- Tramitazioa: Arrunta.
- Prozedura: Irekia.
- Modua: Lehiaketa.
- Lizitaziorako gutxieneko kanona: 300,00 euro/hileko.

#### 5. Bermeak

- Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.
- Behin betiko bermea: 1.814,27 euro (eraikuntzaren balioaren %3a).

**6. Eskaintzak aurkeztea**

- a) Aurkezteko azken eguna: Laneko 15 egun, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerek bi gutun-azal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, modu honetan:
  - A gutun-azalean edo artxibo elektronikoa:
    1. Emakidaduna izateko baldintzak betetzearen zinpeko aitortpena (I. eranskina).
    2. Mantenu eta garbiketa programa.
    3. Elementu eta altzarien proposamena.
  - B gutun-azalean edo artxibo elektronikoa:
    1. Proposamen ekonomikoa (II. eranskina).
    2. Dinamizatzeko plana.
- c) Aurkezteko modua:
  - BERHAZ arreta bulegoa (Ertzilla kalea, 6-8, 48370-Bermeo).
  - Bermeoko kontratugilearen profilean:  
<https://www.bermeo.eus/1470.html> (Kontratuaren kodea: IDA\_ERA\_0025\_2026).
  - Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

**7. Esleipen irizpideak**

1. Eskaintza ekonomikoa: 50 puntu.
2. Emakidaren objektu diren espazio eta lokalen mantenu eta garbiketa programa: 25 puntu.
3. Aritzatxuko Hondartza dinamizatzeko plana: 20 puntu.
4. Lehiatzaileak ipiniko dituen elementu eta altzarien itxura eta ergonomia: 5 puntu.

**8. Eskaintzak irekitzea**

- Erakundea: Kontratazio-mahaia.
- Eguna: Bermeoko Udalaren web orrian eta kontratugile profilean adierazitako eguna eta ordua.

Bermeon, 2026ko martxoaren 27an.—Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly